

# OKEPE

## Orioko Kulturaren Egoeraren Plan Estrategikoa

### 2024-2028



# AURKIBIDEA

1	SARRERA .....	1
2	MARKO ESTRATEGIKOA.....	2
3	IKUSPEGIA ETA BALIOAK .....	3
4	LAN-LERRO ESTRATEGIKOAK .....	4
5	HELBURU ESTRATEGIKOAK .....	6
6	EKINTZA ESTRATEGIKOAK .....	8
7	PLANAREN EBALUAZIOA ETA SEGIMENDUA .....	13

## 1 SARRERA

Kultur dinamika bizia du Oriok, baina Udalak, hala ere, premiazkoa ikusi du hausnartzeko tarte bat hartu eta herriko kulturaren egoera orokorraren azterketa egitea.

Izan ere, herriko kultur dinamika zabala, bizia eta handia izanagatik, dinamika modu sakabanatuan, eta elkarlan eta koordinazio handirik gabe ematen da sarri.

Orioko Kultur Egoeraren Plan Estrategikoak –OKEPE, aurrerantzean– herriko kultur panoramaren etorkizuna ardaztu nahi izan du. Gogoetarako prozesu parte-hartzailea izateaz gain, kulturaren egoera jaso eta etorkizuneko proposamena egitea du xede.

Plan Estrategikoak honako gaiak ditu aztergai:

- Kultur eragileen osasuna eta eragileen arteko elkarlan-dinamikak.
- Kulturara bideratzen diren baliabide ekonomikoak eta bestelako baliabideak.
- Kultur azpiegiturak eta ekipamenduak.
- Kultur agenda, programazioa, zabalkundeak.
- Orioko kulturaren zeharkakotasuna (belaunaldiartekotasuna, ingurugiroa, kulturartekotasuna, euskara, feminismoa...)

Eta, hain zuzen, txosten honetan, 2024-2028rako eragileekin elkarlanean landutako Plan Estrategikoa jaso da.

Honako atalak ditu txostenak: planaren ikuspegia eta balioak, lan-lerro estrategikoak, helburu estrategikoak, ekintza estrategikoak, eta planaren betetzea, ebaluazioa zein segimendua.

## 2 MARKO ESTRATEGIKOA

OKEPEk 5 lan-lerro estrategiko, 16 helburu estrategiko eta horiei erantzuteko 50 ekintza edo neurri barne biltzen ditu bere baitan.



### 3 IKUSPEGIA ETA BALIOAK

#### Ikuspegia

2028an, Orioko kulturak zer-nolakoak nahi du izan?

Orioko herri kulturak euskal kulturaren oinarritua, askotarikoa eta gertukoa izan nahi du 2028an. Euskal kulturaren eta kohesio balioen transmisioa gauzatu, belaunaldiartekotasuna sustatu eta adin guztietako herritarren parte hartzea eta inplikazioa izango duen dinamika nahi da. Zeharkako begiradak eta balioak aintzat hartuko dituen, eta herriko nortasuna oinarri, askotariko pertsonengana iritsiko dena.

Honakoak izango dira bere bereizgarri nagusiak: ekitaldi eta agenda erreferentzialak; udalaren, norbanakoen eta kultur eragileen arteko elkarlana; eta kultur ekosistemaren plaza nahiz sostengu izango diren kale-espazio, azpiegitura eta pertsona-sarea.

#### Balioak

Eta zein izango dira lan egiteko moduak?

- **Parte-hartzea eta elkarlana:** Komunitatea aktibatzeke zein indartzeko, parte-hartzearen kulturaren eraginez.
- **Euskara:** Kultur dinamika euskalduna: euskal kulturaren sustapena eta transmisioa oinarri, euskara kohesiorako tresna bihurtuz.
- **Komunikazioa:** eragileen artean zein herrira begira.
- **Feminismoa:** genero-ikuspegia bermatu eta lanketa indibidual zein kolektiboak bultzatuz
- **Jasangarritasuna:** Ingurumenarekiko arduratsua izango dena.
- **Aniztasuna:** herri-kohesioa sustatzeko, oriotarren aniztasunean arreta jarritz.
- **Belaunaldiartekotasuna:** belaunaldi desberdinen arteko hartu-emanak zainduz eta bultzatuz.



## 4 LAN-LERRO ESTRATEGIKOAK

### 1. KULTURAN ETA PARTE-HARTZEAREN KULTURAN SAKONTZEA



Izaera propioa izango duen **herriko kultur sarea mantentzea, parte-hartze zein militantzia eredu berrietan eragitea, bereziki, belaunaldi desberdinen arteko harremanak eta elkarlanak sustatuz.**

**Kultura erdigunean jartzea**, herritarrek eta bereziki gazteek kultur gaiei denbora eskaintzea; gazteen aktibazioa jomuga. Era berean, **euskal kulturaren eta oriotarren nortasuna eta transmisioa** bermatzeko **herri-ikuspegitik** eragitea.

**Memoria kolektiboa osatu eta herriko kultur eragileak, sortzaileak, norbanakoak... aitortu eta balioan jartzea.**

### 2. ERAGILEEN ARTEKO ELKARLAN ERAGINKORRA



Orioko kultur dinamikan **herrigintza, elkarlana eta sinergia berriak** bultzatzea.

Eragileen arteko topaguneak, elkarlanerako aukerak lehenestea, barne-komunikazio dinamika eraginkorrak eraikitzea, eta askotariko eragileekin lankidetzak artikulatzeko moduak erraztea.

### 3. KULTUR EREDUA: EUSKARA ARDATZ ETA INKLUSIBOA



**Irekitasuna eta aniztasuna, euskaratik. Euskara eta euskal kultura kohesiorako tresna** izanik, gainerako **hizkuntza eta kulturei zabaldua** egongo den kultur dinamika eta programazioa. Horretarako, jatorri askotariko bizilagunak herriko kulturara erakarriko dituen eta ertzetan dauden pertsonen eta kolektiboen interes eta beharrei erantzuneko dien ereduak (intersektionalitatea presente izateko neurriak hartuz, hizkuntza-kudeatzeko estrategiak martxan jarritz, nerabeak protagonista bihurtuz, LGBTQ+ kolektiboa zentroan jarritz, feminismoa ardatz...).

Etengabeko gogoetatik abiatuta, Orioko **kultura-ereduaren inguruko hausnarketa kolektiboa** egitea.

#### 4. KULTUR ESKAINTZA OPAROA ETA KULTURAREN IKUSGARRITASUNA



6000 pertsona bizi diren herri txiki-ertainaren baliabide eta ahalmenetara egokituta, **kultur eskaintza oparoa, askotariko diziplinak** barne bilduko dituena, hala nola antzerkia, literatura, zinema, bertsolaritza, argazkigintza, erakusketak, artea, musika, diseinua...

Horrez gain, **zeharkako ikuspegiak bermatuko dituen kultur eskaintza:** belaunaldiartekotasuna, kultur aniztasuna, genero-berdintasuna, jasagarritasuna...

Eta **kultur agendaren erreferentzialtasunean eragitea**, komunikazio kanal propioak sortuz.

#### 5. ESPAZIO, AZPIEGITURA ZEIN BALIABIDE BIZIAK ETA PARTEKATUAK



**Azpiegiturak berrikustea, eta ekipamendu funtzional berri bat eraikitzea. Espazio partekatuak eta gune erreferentzial** fisikoak lehenestea, baita haur eta nerabeei zuzendutako espazioak ere.

Era berean, **sorkuntzarako baliabideak eta espazioak** bermatzea, herriko sortzaileen aldeko apustua eginez.

**Parte-hartze komunitarioa oinarri, potentziala izan dezaketen espazioak aprobetxatzea**, herriari irekitzea; eta **kaleko espazioei indarra ematea eta gehiago erabiltzea.**

## 5 HELBURU ESTRATEGIKOAK

LAN-ARDATZA	HELBURU ESTRATEGIKOAK	Ekintza kopurua
<b>1. KULTURAN ETA PARTE HARTZEAREN KULTURAN SAKONTZEA</b>	1.1. Gazteen aktibazioan eragitea	2
	1.2. Orioko kultur dinamikan belaunaldiarteko harremanak bultzatzea	3
	1.3. Herrigintza eta kulturaren izaera komunitarioa nabarmentzea eta euskal kulturaren zein oriotarren nortasuna eta transmisioa bermatzeko eragitea	1
	1.4. Kultura erdigunean jartzea: herriko kultur eragileak, sortzaileak eta norbanakoak aitortu eta balioan jartzea	4
	1.5. Kultura Saila indartzea	1
		<b>11</b>

LAN-ARDATZA	HELBURU ESTRATEGIKOAK	Ekintza kopurua
<b>2. ERAGILEEN ARTEKO ELKARLAN ERAGINKORRA</b>	2.1. Orioko kultur dinamikan elkarlana eta sinergia berriak bultzatzea; kultur eragileen artean zein herriko gainontzeko eragileekin.	4
	2.2. Kultur agendaren kudeaketa eraginkorra bermatzea	3
		<b>7</b>

LAN-ARDATZA	HELBURU ESTRATEGIKOAK	Ekintza kopurua
<b>3. KULTUR EREDUA: EUSKARA ARDATZ ETA INKLUSIBOA</b>	3.1. Ertzetan dauden pertsonen eta kolektiboen interesei erantzungo dien eta zeharkako ikuspegiak presente izango dituen kultur eredia lantzea	4
	3.2. Kulturartekotasuna oinarri, oriotar berriak herriko kultur dinamiketara gerturatzea eta elkarbizitzan sakontzea	6
	3.3. Euskara ardatz eta inklusiorako tresna dela bermatuz, hizkuntza kudeatzeko estrategiak lantzea	2
	3.4. Orioko kultura ereduaren inguruko hausnarketa kolektiboa egitea	1
		<b>13</b>



LAN-ARDATZA	HELBURU ESTRATEGIKOAK	Ekintza kopurua
<b>4. KULTUR ESKAINTZA OPAROA ETA KULTURAREN IKUSGARRITASUNA</b>	4.1. Askotariko disziplinak barnebilduko dituen programazio kulturala aberastea	1
	4.2. Kulturaren ikusgarritasuna bermatzea eta komunikazio-kanal propioa sortzea	7
		<b>8</b>

LAN-ARDATZA	HELBURU ESTRATEGIKOAK	Ekintza kopurua
<b>5. AZPIEGITURA ZEIN BALIABIDE BIZIAK ETA PARTEKATUAK</b>	5.1. Herriko azpiegiturak berrikustea eta ekipamendu /espazio funtzionalak eraikitzea edo egun daudenen erabilerak adostea	7
	5.2. Kaleko espazioei indarra ematea eta gehiago erabiltzea	2
	5.3. Sorkuntzarako baliabideak eta espazioak bermatzea	3
		<b>12</b>

## 6 EKINTZA ESTRATEGIKOAK

Ardatza	Helburu estrategikoak	Ekintzak
<b>1. KULTURAN ETA PARTE HARTZEAREN KULTURAN SAKONTZEA</b>	<b>1.1. Gazteen aktibazioan eragitea</b>	Gazteen artean galdeketa bat egin: gazteen interesak, zer/nolako eskaintza nahi luketen... ezagutzeko, eta galdeketa ikastetxeetan, sare sozialetan, kirol taldeetan... zabaldu.
		Kirol- eta aisialdi-ereduari buruzko hausnarketa partekatua egin, kulturak duen tokiaz hausnartzeko.
	<b>1.2. Orioko kultur dinamikan belaunaldiarteko harremanak bultzatzea</b>	Belaunaldi desberdinak lotzen dituzten ekintza/taldeak identifikatu eta daudenak indartu.
		Belaunaldi ezberdinetako jendearentzat eguneko/goizeko ekintzak sortu, aktibatze eta ideia/gogoeta transmisioa egoteko.
		3. adineko taldeekin (Zaharren Babeslekua, adibidez), erreferentziatzeko pertsonekin eta herriko beste taldeekin elkarlanean aritzeko sinergiak sortu eta baldintzak landu(adibidez, hirugarren adinekoak eta Txurumuskikoekin bingoak)
		3. adinekoei beraien esperientzia edo istorioak kontatzeko aukera eskaini (Esperientzia Eskolak)
	<b>1.3. Herrigintza eta kulturaren izaera komunitarioa nabarmentzea eta euskal kulturaren zein oriotarren nortasuna eta transmisioa bermatzeko eragitea</b>	Sare sozialetan, Orioko kulturaren euskarri digitala, balioen transmisioa bultzatzeko erabili, eta herriko sortzaileak, ezagutza tradizionalak... ezagutarazi.
	<b>1.4. Kultura erdigunean jartzea: herriko kultur eragileak, sortzaileak eta norbanakoak aitortu eta balioan jartzea</b>	Herriko kultur taldeen egun bat ospatu urtean behin, azoka gisa (plazan bakoitzak bere postua eta egindako lana erakutsi).
		Kultur bekaren bitartez Orioko kultur eragileen lana, historia eta tradizioa bilduko dituen dokumental bat egin. Material honek parte-hartzearen kultura indartzeko balio dezake.
		Orioko kulturaren denbora-lerroa osatu eta eguneratu
<b>1.5. Kultura Saila indartzea</b>	Kultur teknikariaren funtzioak zehaztu eta Kultura Saila indartzeko aukerak aztertu	

Ardatza	Helburu estrategikoak	Ekintzak
<p style="writing-mode: vertical-rl; transform: rotate(180deg);"><b>2. ERAGILEEN ARTEKO ELKARLAN ERAGINKORRA</b></p>	<p><b>2.1. Orioko kultur dinamikan elkarlana eta sinergia berriak bultzatzea; kultur eragileen artean zein herriko gainontzeko eragileekin.</b></p>	<p>Kultur Mahaia indartu: talde bakoitzeko 1 edo 2 elkartzuz, ekintzak eta pentsakera erdigunea ekarri eta elkarlana sortzeko.</p>
		<p>Kirol arloko eragileekin komunikazio-dinamikak eraiki eta koordinazioa areagotu (online espazioa izan daiteke)</p>
		<p>Ekitaldiak antolatu elkarrekin (Txurmuski+Errio; Box+Salatxo). Adibidez, Herribilen egiten zen moduan. Online espazio bat bilatu.</p>
		<p>Kultur eragileen arteko harremanetarako tresna bat sortu: kultur eragileen zerrenda eta harremanetarako pertsona jakin bat.</p>
	<p><b>2.2. Kultur agendaren kudeaketa eraginkorra bermatzea</b></p>	<p>Kultur eragileen whatsapp sareetako komunikazioan elkar laguntzeko</p>
		<p>Kultur eragileen agenda egiteko irizpideak eta metodologia adostu:</p>
		<p>Agenda bateratua eta partekatua osatu</p>

Ardatza	Helburu estrategikoak	Ekintzak
<p style="writing-mode: vertical-rl; transform: rotate(180deg);">3. KULTUR EREDUA: EUSKARA ARDATZ ETA INKLUSIBOA</p>	<p><b>3.1. Ertzetan dauden pertsonen eta kolektiboen interesei erantzungo dien eta zeharkako ikuspegiak presente izango dituen kultur eredia lantzea</b></p>	<p>Oriora bizitzera etorritakoen festa/egun bereziak herrira ekarri; kanpoko “festa” egunak Orioko kultura bihurtzea; aniztasunari erreferentzia eginez.</p> <p>Herritarrak atzerriko kolektiboen arazo eta gabeziak ezagutzeko baliabideak sortu: ekitaldiak, hitzaldiak.</p> <p>Dirulaguntza eta hitzarmenetan euskara, berdintasun, jasangarritasun, aniztasun eta kulturartekotasuna ikuspegiak bermatzeko klausulak txertatu.</p> <p>Kultur dinamikara herriko bestelako eragileak eta kolektiboak erakarri: Herrio natur-taldea, Saregile, LGTBQ+ kolektiboa, hezkuntza zentroak...)</p>
	<p><b>3.1. Ertzetan dauden pertsonen eta kolektiboen interesei erantzungo dien eta zeharkako ikuspegiak presente izango dituen kultur eredia lantzea</b></p>	<p>Udaletik ematen den “harrera kit”erako kultur eta parte-hartzeko aukera ezberdinak jasoko dituen katalogo moduko bat egitea</p> <p>Kultur desberdinak (informazioa) zabaltzeko guneak antolatu (hitzaldiak, liburutegiak non kultur desberdineko liburuak azaltzen diren...), ipuin kontalariak (senegaldarrak, txinatarrak, afrikarrak, Jugoslaviarrak...)</p> <p>Agenda herrian dauden hizkuntzetan irakurtzeko aukera jarri</p> <p>Kultur integrazioa bermatzeko dekalogo moduko bat osatu</p> <p>Euskaldun/Oriotar berriei eguna antolatu edo egun/asteburu kulturala ospatu</p>
	<p><b>3.2. Kulturartekotasuna oinarri, oriotar berriak herriko kultur dinamiketara gerturatzea eta elkarbizitzan sakontzea</b></p>	<p>Euskarazko kultur eskaintza bermatu</p> <p>Hizkuntza kudeatzeko baliabideak eta bat-bateko itzulpenak egiteko sistemak (xuxurlariak, etab) erabili</p>
	<p><b>3.4. Orioko kultura ereduaren inguruko hausnarketa kolektiboa egitea</b></p>	<p>Etengabe, Orioko kulturaren egoeraz, balioez, ikuspegiez, ereduaz... hausnarketa partekatua egin.</p>

Ardatza	Helburu estrategikoak	Ekintzak
<p style="writing-mode: vertical-rl; transform: rotate(180deg);"><b>4. KULTUR ESKAINTZA OPAROA ETA KULTURAREN IKUSGARRITASUNA</b></p>	<p><b>4.1. Askotariko disziplinak barnebilduko dituen programazio kulturala aberastea</b></p>	<p>Programazio kulturala aberastu</p>
	<p><b>4.2. Kulturaren ikusgarritasuna bermatzea eta komunikazio-kanal propioa sortzera</b></p>	<p>GUKAn herriko eragileen ikusgarritasuna bermatu.</p>
		<p>Egun bat edo sortzea podcast/laburmetraia sortzaileentzat</p>
		<p>Kultur programan eragilerik ez baztertu (mendi-irteerak eta sartu)</p>
		<p>Kultur eragileen gida bat egin, eragile bakoitzaren informazioarekin: zer egiten duten, argazkiak, kontakturako datuak...</p>
		<p>Orio kulturaren webgune eta sare sozialetako profil bat sortu, espezifikoa: agenda, eragileen informazioa... azalduko dena, eta eragileek sarbidea izatea agendak eta informazioa eguneratzen joateko.</p>
		<p>Kale-espazioan adierazpenak egiteko aukeren, baliabideen eta panel urdinen erabileraren irizpideak berrikusi Kultur Mahaian</p>
		<p>Boxetako erabiltzaileen entsegu irekiak berreskuratu</p>

Ardatza	Helburu estrategikoak	Ekintzak
<b>5. AZPIEGITURA ZEIN BALIABIDE BIZIAK ETA PARTEKATUAK</b>	<b>5.1. Herriko azpiegiturak berrikustea eta ekipamendu/espazio funtzionalak eraikitzea edo egun daudenen erabilerak adostea</b>	Azpiegitura berri bat eraikitzeko inbertsioak zehaztu eta lanak bideratu: 200 pertsonentzako aforoa izango duena, moldagarria eta egokitzeko eroso
		Kosta Tailerra: koordinazio lana sakondu, eraginkortasuna bilatuko duen saiakera berri bat egin, tinbrea jarri.
		Arraunetxea: Ekintza agendara batu.
		Taldeko lanak egiteko espazio bat sortu: eragileen arteko bilerak, proiektuen lanketak egiteko...
		Kosta Tailerraren xede orokorra finkatu eta egungo eredia nola osagarritu definitu.
		Liburutegiaren kokapena eta zerbitzua berraztertu eta egokitu
		Lokalen erreserben eta okupatzeen berri izateko sistema bat ezarri (agenda)
	<b>5.2. Kaleko espazioei indarra ematea eta gehiago erabiltzea</b>	Herriko Plaza herriko erdigune kultural moduan aldarrikatzen jarraitu
		Ikastola aurreko estalitako espazioa, Zimitarioa... erabili kultur ekitaldietarako
	<b>5.3. Sorkuntzarako baliabideak eta espazioak bermatzea</b>	Sorkuntzarako espazioak, co-working espazioak... jartzeko aukera aztertu
		Noizbehinkako tailer espezifikoak eskaintzen jarraitu eta berriak sortu (jakintza, margolanak, eskulanak... adin eta genero guztientzat)
		Sorkuntza sustatzeko sormen beka bat sortu

## 7 PLANAREN EBALUAZIOA ETA SEGIMENDUA

Planak guztira **16 helburu estrategiko eta 50 ekintza** jasotzen ditu; horietako batzuk udalari dagozkio, beste batzuk eragileei, eta beste batzuk, aldiz, elkarlanean garatu beharrekoak dira.

Plana bere osotasunean garatzeko eta jarraipena egiteko ardura Kultura Sailak izango du, baina udaleko gainontzeko sailekin elkarlanean jardungo da, baita kultur eragile eta norbanakoekin ere; hala nola, Kultur Mahaiaren bitartez.

OKEPE, urteko planen bidez antolatu eta garatuko da. Urte bakoitzaren hasieran, urte horretan martxan jarriko diren neurriak identifikatu eta planifikatuko dira, eta neurrien aurrekontua ere zehaztu egingo da. Urte amaieran, aldiz, adierazleei jarraiki, egindakoa eta egin gabekoa baloratuko da. Gainera, plana bizia izanik, urtez urte plana egokitu eta moldatzeko aukera egongo da.

Hori horrela, planaren ebaluazioa eta segimendua [OKEPE\\_Plan Estrategikoa 2024-2028.xlsx](#) tresnaren bitartez egingo da.